


AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA KATE HANDIETAKO MERKATARITZA INDIZEA. 2021eko otsaila

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 6 murriztu dira 2021eko otsailean

2021eko urtarrilaren aldean jaitsiera % 1,7koa da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek urte arteko % 6,0ko murrizketa izan dute 2021eko otsailean, prezio finkoetan. 2021eko urtarrilaren aldean, eta urtaro-eraginik gabeko terminoetan, salmentak % 1,7 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Elikagaien salmentek azalera handietan eta elikadura-kate handietan % 0,3ko atzerakada izan dute aurreko urteko hil beraren aldean. Gainerako artikuluen kasuan, ordea, beherakada handiagoa izan da, % 18,2koa, 2020ko otsailarekin alderatuta.

Lurraldeka, Araban % 1,2ko igoera izan da salmentetan urte arteko alderaketan; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, salmentak 2020ko otsailean ikusitakoak baino % 5,5 eta % 9,9 txikiagoak izan dira, hurrenez hurren.

Aurreko hilaren, hau da, 2021eko urtarrilaren aldean, prezio konstanteetako elikagaien salmentak % 2,5 jaitsi dira otsailean; gainerako produktuenak, berriz, % 0,4 igo dira. Araban hil arteko % 2,4ko igoera izan da, Bizkaian salmentak % 0,4 jaitsi dira aurreko hilaren aldean eta Gipuzkoan jaitsiera nabarmenagoa izan da, % 5,6koa.

2021eko urtarileko eta otsaileko metatutan, Merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmenta-indizeak % 2,7ko murrizketa izan du, zeren gainerako produktuen salmentek % 14,8ko jaitsiera metatua baitute; aldiz, elikagaien salmentak % 3,8 handiagoak dira aurreko urteko aldi berean ikusitakoak baino.

Lurraldeka, aurtengo aldakuntza metatua positiboa da Araban (% 1,6); Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, negatiboa da (% 2,9 eta % 4,4, hurrenez hurren).

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako enplegatuen kopurua % 1,2 gutxitu da aurreko urteko hil beraren aldean eta % 0,2 aurreko hilaren aldean. 2021eko lehenengo bi hilabeteetako metatutan, jaitsiera % 0,7koa izan da, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Otsaila 2021 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-6,0	-1,7	-2,7
Araba/Álava	1,2	2,4	1,6
Bizkaia	-5,5	-0,4	-2,9
Gipuzkoa	-9,9	-5,6	-4,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	-0,3	-2,5	3,8
Beste produktuak	-18,2	0,4	-14,8
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	-1,2	-0,2	-0,7

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

INFORMAZIO OHARRA

Urte arteko aldakuntzak kalkulatzeko, egutegi-eraginik gabeko serie zuzenduak erabiltzen dira, eta hil arteko aldakuntzak kalkulatzeko, urtaro-eraginik gabeko serieak.

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enpleguaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaletan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#). ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie Azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, otsaileko indizea laginaren % **92,5eko estaldurarekin** kalkulatu da –laginaren informazioa martxoan gaindi jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62